



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**Bingen Zupiria Jauna**

**Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua**

**Jon Redondo Lertxundi jauna**

**Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zuzendaritza**

2021eko Martxoak 18an

Sailburu agurgarria:

Pandemia lazgarri honetan, gizarteak hartaz espero zuen mailan egon da futbol amateurra, oro har kirol amateur guztia bezala, atsedetik gabe aritu baita osasun-agintarien gomendioak betetzeko orduan, protokoloak aktibatuz instituzioek artean argitaratu gabe zituztenean, beren jabetzakoak ere ez diren instalazioen segurtasunean inbertituz, eta gazteak kontzientziatuz pandemiari aurre egiteko prebentzio-arauak zorrotz betetzeko beharraz.

Hainbat hilabetez kirol-jarduerari mugak jarri ondoren, joan den astean afizionatu mailako futbol-lehiaketei ekin zaie berriro, eta normaltasunez egin dira ia erabat, federazioen, klubuen, zuzendarien, jokalarien, teknikarien eta arbitroen erabateko inplikazioarekin, denak koordinatuta arriskuak gutxitzeko.

Norgehiagokak berriro aktibatu ondoren, gure ustez, bada garaia futbol-zelaietara ikusleak joateko aukera aztertzeko. Kontuan izan behar da kasu gehienetan oso jende gutxi joaten dela, eta instalazioetan edukiera mugatzea nahikoa izango litzatekeela zaleen eskaera asebetetzeko eta, era berean, aire zabaleko esparruetan segurtasuna bermatzeko, azalera horretan arazorik gabe bete baitaiteke ikusleen arteko distantzia.

Era berean, kontuan hartu behar da autonomia-erkidego mugakideak aukera ematen ari direla jendea partidetara joateko (Nafarroa, Kantabria eta Errioxa), eta horrek, konparaziozko bidegabekeria izateaz gain, gutxiagotasunean uzten dituela gure estatu mailako txapelketetan parte hartzen duten taldeak.



Hori guztia dela eta, gure ustez, klubek eta federazioek antolatzeko duten gaitasuna argi frogatuta dagoenez, une egokia da futbol-partidetara ikusleak sartzen uzteko, segurtasunez eta adituek ezarritako mugekin, betiere pandemiaren bilakaerak okerrera egiten ez badu. Helburu hori lortzeko, Euskadiko Futbol Federazioaren, hiru lurralde-federazioen eta horiei atxikitako klub guztien lankidetzara aktiboa dugu.

Jakina, prest gaude adituek beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak indartzeko eta protokoloak hobetzeko, ikusleak ahalik eta bermerik handienekin joan daitezten.

Gure ekarpenak aintzat hartu eta eskatutakoa onartuko duzuelakoan, adeitasunez, agur.

Javier Landeta García

**Euskadiko Futbol Federakundea**

Kepa Arrieta González

**Arabako Futbol Federakundea**

Manu Díaz De Marcos

**Gipuzkoako Futbol Federazioa**

José Ignacio Gomez Mardones

**Bizkaiko Futbol Federakundea**